

Literaturaren magia ikasgelan

Laura Mintegi Lakarra

Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika saila

El objetivo de este trabajo es ofrecer una nueva visión para trabajar la literatura en el aula. Presenta dos partes. En la primera se hace una exposición del aspecto más academicista de la Didáctica de la Literatura, basada en la metodología convencional de los libros de texto para la enseñanza de la literatura en la escuela. En la segunda parte, en cambio, se presenta una nueva propuesta para acceder al texto literario, un método mucho más intuitivo y subjetivo, elaborado a partir de la Teoría del Sujeto y del psicoanálisis.

En el trabajo se defiende que estos dos métodos de acceder al texto no son contrapuestos, y que se debe de huir de las actitudes extremas que suelen provocar la ley del péndulo. Pero tampoco sería conveniente integrar la propuesta subjetivista dentro de una metodología academicista, como si fuese un mero capítulo de ésta, puesto que perdería todo su poder sugestivo. Una y otra pueden ser complementarias, siempre y cuando estén bien diferenciadas.

Palabras claves: *Didáctica de la Literatura. Psicoanálisis y literatura.*

The goal of this article is to present a new view to handle literature in the classroom. It comprises two parts. The first part likes to expound the most academic side of the so-called Didactics of Literature, which is based on the conventional methodology of the textbooks used for the teaching of literature in the school. The second part develops a new approach to the literary text, a rather intuitive and subjective method that is constructed from the Theory of Subject and from psychoanalysis.

Along the article, the author upholds the idea that these two ways to approach the literary text are no opposite of each other, and that it is necessary to avoid extreme stands which accordingly might lead to volatile outcomes. Nevertheless, it would not be advisable either to try to integrate the subjectivist proposal into the academic methodology, as a mere chapter of the latest, since then it would lose all its stimulating capacity. Both of them can be complementary, as long as they are clearly differentiated.

Key words: *Literature Didactics. Psychoanalysis and Literature.*

SARRERA

Lan honen asmoa da literatura ikasgelan lantzeko proposamen berriak eskaintzea. Lanak bi zati izango ditu. Lehen zatian Literaturaren Didaktikaren aspektu akademizista azalduko dugu, hau da, literatura ikasgelan irakasteko testu-liburuetan azaltzen den metodologia konbentzionala. Bigarrenean, aldiz, testu literarioari heltzeko proposamen berria azalduko dugu, askoz ere intuitibo eta subjektiboagoa, psikoanalisiak landu egin duen Subjektuaren Teoriatik abiatuta.

Ez dugu uste metodologia biak kontrajarriak direnik. Literaturaren arloan, bai Literaturaren Teoriak garatzeko orduan baita Literaturaren Didaktika lantzeko unean ere, joera nagusia izan da teoria berria kaleratzerakoan aurrekoak baztertzeari, kasu askotan penduluaren legeari bortizki eginez. Ez dugu uste horrelakorik egitea ezinbestekoa denik. Hala ere, ez da komenigarria irakurketa subjektiboa egiteko proposatuko dugun metodologia, metodologia akademizistaren barnean sartzea, haren atal hutsa bailitzen. Bi metodologiak osagarriak suerta daitezke, baina bata bestearen-gandik ondo bereiztuta, efektibitatea galtzerik ez badugu nahi.

Beraz, lehenik metodologia akademizista azalduz hasiko dugu lana eta, ondoren, proposamen berria azalduko dugu.

1 LITERATURAREN DIDAKTIKAK DIOSKUENA

2.2.1. Testu azterketaren garrantzia.

Literaturaren Didaktika konbentzionalak testu azterketan jartzen du azpimarra, eta proposamen hori ez da merkea, testu azterketaren garrantzia bikoitza baita. Alde batetik, testua dugu irakasgaiaren protagonista eta aztergai nagusia, galdera gehienetarako erantzunen iturri berezkoa alegia. Bestaldetik, testua dugu, eta ez beste ezer, elementu ia bakarra literaturaren munduan (bi zentzuetan harturik, fenomeno literario eta ezagupen tresna) sakondu ahal izateko tresna. Testu azterketa hobetzeko egingo ziren ahaleginak, beraz, ongi etorri izan daitezela, zenbat eta aberatsagoa, gero eta tresna baliagarriagoa bihur baitaiteke testu azterketa.

Nolanahi ere, testu azterketak deskripzio formalista aseptikoetatik alde egin beharko luke, *"testuak bere egilearen esperientzia historikoa eta estetikoa, irakurle-arenarekin kontaktuan jartzeko"* helburua baitauka, Andrés Amorós-ek dioenez'.

Hau da, garai batean idatzi zuen idazlea, eta beste leku eta garaian irakurriko duenaren arteko zubia testuaren bidez eraikitzen da. Testua da zubia, diferentzia historiko eta sozialak batzen edo erlazionatzen dituena. Eta testu horren azterketa komunikazioa erraztuko du, hizkera literarioaren ezagupenean sakontzen duen neurrian.

Baina egileak eta garaiak ez dira beti iraganekoak izan behar. Aipatu kritikari honek dioenez, *"irakaskuntzaren kasuan, komenigarria iruditzen zait, zalantzarik gabe, gaur egun gure herrian idazten ari dena ikasleek ezagut dezatela, obra horietan oraingo uneko sentsibilitatea islatzen baita"*. Eta bere ideia indartzeko, Strawinski-ren hitzak birgogoratzen ditu: *"beraren garaiko artea preziatzen ez duenak ez du, funtsean, inoizko garaikoa preziatzen"*. Hitz batean, tradizioa eta orijina-

litatea ezagutu, biak uztartu eta aztertu, biak baitira, esaterako, Pedro Salinas-ek sormen unerako bindikatzen zituen baloreak.

Gai interesgarria azaltzen zaigu une honetan, esandakoari lotuta. Testu azterketaren ardura nagusia beti izan da "nola aztertu" galdetzea, baina badago, egon, aurretiko galdera bat: "zer aztertu". Testu-liburuek ez diote kontu honi garrantzi handiegirik ematen. Edozein testu izan daiteke aztergai. Eta bai, egia da, edozein testu azter daiteke. Baina ikasgelan literaturaren magia dastatu nahi badugu, testuaren aukeraketan datza magia sortzeko sekretuaren kakoa. Hori guztia, baina, bigarren ataleko gaia izango da.

1.2. Metodologia didaktikoa.

Testu-liburuak aspaldidanik ohartu dira mwtodo bizen garrantziaz. Azalpen-errepikatze-memorizatze soilean oinarritzen den metodologia, ikasle pasiboak eta desmotibatuak sortzeko bide onena da.

Metodologia eraginkorrek honako berezitasunak ditu:

- a) Ikaslearen interesik sakonenetik abiatzea. Ikasten ari den gaiari buruzko galderak egiteko eta erantzunak aurkitzeko aukera erraztu.
- b) Eskola bizitzara irekia. Ikaslea bizi den inguru-giroarekin konektatu. Ez eman berez aurki dezakeena: testu, elkarriketa edo esperientzia zuzenez ordezkatu (hitzaldi, mahai-inguru, emanaldi, etab.).
- c) "Eginez ikasi" leinari ahal den guztia jarraitu. Egiten duguna, esaten digutena baino askoz ere emankorragoa da, eta praktikatzea ere ikastea da.
- d) Interdisziplinarra izan. Antzerkilana ikustea, adibidez, kulturari aberastea da, literatura bizirik ezagutzea eta hizkuntza aberastea. Ikasgelatik kanpoko heziketa ez da bertakoa baino hutsalagoa.

Azken finean, gure ikasleek (Irakasle Eskoletan ditugunak ez ezik, eskoletan ditugun ikasleak ere) ez dute literaturan espezializatuak izan behar. Literatura lantzean gure lehentasuna ez da eduki akademikoak bereganatzea, hezkuntza osoaren plangintzan lagungarri izango zaien arloa sakontzea baizik.

Bestalde, zientzia bakoitzak tratamendu espezifiko eskatzen du, eta tratamendu berezitu hori, gehi irakasle bakoitzak duen irakaskera berezkoa, motibagarri ala apatia-sortzaile izango dira ikaslearentzat. Honek guztia bide emango digu proposamena berria egiteko, geroago azalduko duguna.

Irakaskuntzaz ari garela, ikaslearen arloari begiratu behar diogu orain. Ikaslearen jarrerak berebiziko garrantzia du irakatsi-ikasi prozesuan. Ikasteko, ikasi nahi behar izaten da. Beraz, ikaslearen borondatea, aurrejarrera ona eta gutxienezko interesa behar dira ... kuriositatea. Jakinmina dugu irakaslerik onena. Eta kuriositatek ez badago, irakaslearen zeregina izango da piztea, motibatzea.

Gai guztietan honela bada, areago izango da literaturaz ari garenan: hezkuntza-mezua ez da eduki teorikoetara mugatzen. Hori baino askoz ere zabalagoa da. Hezkuntza-mezua ikaste-prozesuarekin zerikusi duen guztia da; adimena, jarrera,


jokabideak, komunikazio ez-berbazkoa... elementu kognitibo eta sentsitibo guztiak motibazioaren alde jarriko dira lanean.

1.3. Metodologiaren planifikazioa.

Literaturaren didaktika akademikoak esaten digunari jarraituz, ikus dezagun nola egietn den metodologiaren planifikazioa, eta planifikazio horren barruan zein den irakaslearen zeregina.

Irakaskuntzarako Metodologia	
<p>Motibazio eta jarrera positiboak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Helguma, xedea, helburuak - Aulokonfiantza 	<p>Irakaslearen zeregina</p> <ul style="list-style-type: none"> - Motibazioa landu - Autozkontzeptu positiboa azpimarratu
<p>Teknika eraginkorrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Irakurketa eta kontsultak: <ul style="list-style-type: none"> • irakurketa abiadura • irakurketako ulermena • liburu, aldizkarien kontsulta - Sintesiak: <ul style="list-style-type: none"> • azpimarratzea • laburtzea • eskemak egitea • koadro sinoptikoak egitea • gelan apunteak hartzea - Ikasi eta berrikusi: <ul style="list-style-type: none"> • aktiboki ikasi • berrikusketak programatu - Dokumentatzea: <ul style="list-style-type: none"> • fitxa bibliografikoak erabili • aipuak • lan monografikoak egin - Azalpenak: <ul style="list-style-type: none"> • gaia idatziz azaldu • gaia ahoz azaldu - Taldeko lanak: <ul style="list-style-type: none"> • talde lana egiteko antolazten ikasi • lantaldean aktiboki parte hartu 	<ul style="list-style-type: none"> - Oinarrizko teknika eraginkorrak irakatsi - Beraien erabileran trebatu - Metodologia eraginkorra erabili
<p>Lanerako oinarrizko azturak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Denbora eta ekintzak antlatu - Ikasteko girotu espazioa: <ul style="list-style-type: none"> • lekua eta unea • postura • giroa 	<p>1 Azturak sortu</p>

Aurreko eskeman metodologiaren planifikazio laburtua azaldu den arren, bertan ez da intzatu ebaluazio beharraz, edozein metodologiatan guztia garrantzitsua den arloa. Metodologiaren eskema orokorra azaldu beharko bagenu, honela irudikatuko genuke koadro batean:



1 LITERATURAREN DIDAKTIKARAKO PROPOSAMENA.

2.3. Helburuak direla eta

Literaturaren didaktika akademizistak, beraren helburuak zehazteko uenak, helburu operatibo edo funtzionaletan jartzen du azpimarra, hau da, Tomas Escudero Escorzak² *portaera helburuak* deitzen dituenak. Helburu hauek trebetasun konkretuen lorpenerako zuzenduta daude: "pentsatu", "ulertu", "jakin" edo "barneratu" aditzen anbiguotasuna saihestuz, bestelako ekintzak bultzatu nahi dituztenak dira: ordenatu, bereiztu, zuzendu, neurtu, ondorioztatu, deskribatu, ebaluatu eta abar.

Helburu hauen aurretik, aitzitik, bestelako helburu batzuk daude, *helburu formatiboak* alegia, orokorrak, norbanakoaren prestakuntza osoarekin zerikusi handiagoa dutenak gaiarekiko ezagutzarekin baino. Elliot W. Eisner-ek³ *helburu espresiboak edo adierazpen helburuak* deitzen ditu, eta beraren ustez, hezkuntzaren edozein fasetan baliaigarriak diren arren, hobeto moldatzen dira lan intelektualaren adierazbide sofistikatuetan, hau da, ikerketa, eztabaida eta hausnarketa nagusi diren kasuetan.

Helburu hezgarri hauek ez dute irakasgaia erreferentzi nagusitzat hartzen. Beretik kanpo eta beraren gainetik aritzen dira, eta lotura handiagoa dute pertsonaren hezkuntzarekin, beraren prestakuntza akademiko soilarekin baino.

Hemen proposatzen den literatura lantzeko moduarekin hurbilen dauden helburuak hauek dira.

Grafikoki azalduko dugu helburu batzuen eta besteen arteko aldea.

Helburu hezgarriak (formatiboak)	Helburu funtzionalak (trebetasunak)
<p>1 Ingurunearen azterketa kritikoa egilearen komenientziaz oharrazazi</p> <p>1 Errealitatearen egoeraz jabetzeko, ikasleek beharrezko dituzten elementuak azaldu</p> <p>1 Edzein lani ekiteko planifikazio orokorraren beharrak ardurarazi</p> <p>1 Planifikazio orokorra eta balizko gizarte ereduaren arteko loturak agerian ipini</p> <p>1 Gizarte horretan eta planifikazio horren bidez sortu nahi den hezlari mota zehaztu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Literatura agerpen sozialaren inplikazio, konotazio eta esanahi anitzaren ezagupenera hurbildu • Fenomeno literarioarekiko zaletasuna sortu, ikasleengan irakurketarako grina eraginez. • Testuarekiko iritzi kritikoa landu, honetarako testu azterketa tresnatzat erabiliz • Testu azterketaren metodologia, ahalmen, baliabide eta aplikapenak ikasi • Literaturaren ezagutza extentsiboa (historikoa) zein intentsiboa (kritikoa) jasoarazi • Literaturaren gaiaren errekurtso didaktikoez jabetu • Planifikazio, metodologia, ebaluaketa eta, oro har, literaturaren irakaskuntzan aritzeko irakaslegaiak prestatu.
<p>Bestera esanda:</p> <p>1 non gauden jakin (zeri begiratu hori jakiteko?)</p> <p>1 nora goazen erabaki (bidea argitu)</p> <p>1 espero duguna zehaztu</p>	<p>Bestera esanda:</p> <p>1 literatura zer den ezagutu</p> <p>1 zaletasuna sortu</p> <p>1 iritzi kritikoa landu</p> <p>1 literaturaren irakaskuntza planifikatu</p>

2.2. Testua aukeratu.

Testu baten aukeraketa egiteko unean badaude, berez, kontutan hartu behar diren zenbait faktore.

Lehen faktoreak ditugu ikasleak nolakoak diren, beraien adina, zaletasun maila, irakurketa ulermena... Kontutan hartzeko bigarren faktoreak, aldiz, lotu edo azaldu nahi den efektua da, abangoardia azaldu, irudi edo teknika literario berezien berri eman... eta, azkenik, beste faktore batzuek ere badaude, merkatuarekin loturik daudenak: plazaratzen diren berritasunak, argitaralpen agortuak, azken orduko berrargitalpenak, eta klasikoek eskuratze editoriala.


Faktore horiek guztiak neurtzekoak diren arren, lehen galdera da: "testu honek badu zeresanik?, norbanakoari hitz egiten dio?, zer nolako inzidentzia eduki dezake irakurlearen subjektibitatean?". Hau da, norberari "zerbait" esaten dion testua aukeratu behar dugu, ilusioa piztu, interesa transmititu eta zaletasuna sor dezakeen testua. Nola lortzen da hori guztia? Zerk sortarazten du interesa? Zergatik harrapatzen gaitu testuak?

Gure subjektibitateari hitz egiten diolako, gutaz ari delako, gure izaeraz mintzo delako.

Oro har, subjektibitatearen faktore nagusiak agertzen dituen testua izango da irakurleari esateko zerbait duena. Ikus dezagun, bada, zeintzuk diren faktore hauek.

- Gertakizun larria. Norbanakoak kolokan jartzen du bere bizitza. Angustia prozesu bati ekiten dio.
- Dessubjektibazio prozesua. Zirt ala zart egin beharreko egoeran dago. Zalantza. Angustia. Norbanakoak erabaki bat hartu beharra dauka.
- Ideal edo printzipio batek, justizia nahiak edo egia bilatu nahiak bultzatzen du norbanakoa aurrekoarekin apurtzera. Egitura berria eraiki behar du, aurrekoarekiko desberdina.
- Subjektibazio prozesua osatzen da. Norbanakoa subjektu bihurtu da. Angustiaren ordeaz, kemena; zalantza ordeaz, egia berria sortu du.

Oso eskematikoki eta laburbilduz, hauxe litzateke eskema:



Eskemak korapilatsua ematen badu ere, azaltzen ari garen sentimendu sekuentzia mota guztietako testuetan aurki daiteke, "Mari Errauskin" ipuinetik hasita azken garaiko pelikuletaraino ("El Club de la poetas muertos", "La delgada linea roja" ...).

Protagonistak, krisi sakonaren erruz, ustez amaierarik gabeko putzuan ikusten du bere burua, eta ez da zulotik aterako harik eta kemen nahiko bilduko duen arte. Unerik latzenezan, honelako sentimendu sekuentzia pairatuko du:

beldurra
antsietatea
angustia
erruduntasuna
tristura
autoerrukitasuna
ihes/froga/irtenbiderako irrika
zesioa
hastapenera itzuli nahia-ezina
heriotza sinbolikoa

Behin "hil" ondoren (heriotza sinbolikoa izaten da kasu gehienetan), berriz ekingo dio berpizteari, eta gizaki berria bihurturik agertuko da gainontzekoen aurrean.

Testuaren aukeraketari buruz, azken ohartxo bat. Metodologia akademizistak dio komenigarri dela gaurko testuak erabiltzea, egilearen esperientzia historikoa eta estetikoa, irakurlearenarekin kontaktuan jartzeko. Hemen garatzen ari garen proposamenaren arabera, kontaktua lortuko duen gakoa ez da historizista edo garaiarekin loturikoa. kontaktu hori subjektibitatearen bidez gauzatuko da, hau da, kontakizunaren subjektuak irakurle den horri egingo dio deia, eta subjektibitatea azalarazi duten testuak garai guztietan izan dira.

Bada egia, estetikaren aldetik testua zaharkituta gera daitekeela, baina irakaslearen trebeziak lor dezake urruntasun estetikoa gailentzea eta testuaren mamia jotzea.

2.3. Testua landu.

Testu mota berri hau aukeratu ondoren, irakaslearen lana zubiak eraikitzea da. Beraz, testua lantzeko bidea ez da analitikoa izango. Ez da eskemarik, koadro sinoptikorik edo eta laburpenik eskatuko. Ez da dokumentazioa lanik burutuko. Testuaren lanketa, norberaren subjektibitatearen lanketan oinarrituko da. Testuan azaltzen diren bizipenen eta irakurlearen bizipenen arteko zubia sortuko da, bai protagonista eta bai irakurlea bizi-esperientzia bereko partaide baitira. Biek konpartitzen dute curriculum afektibo bera, eta biek "ezagutzen" dituzte testuan azalarazten den sentimendu sekuentzia bera.

Magia, beraz, literaturaren magia sortuko da aurretik (beste nonbait eta beste garai batean) sorturiko liburu batean, "gutaz" mintzatzen dela ohartuko garenean. Horixe izango da liburua "gure" egiteko bide zuzenena eta interesgarriena, ezbaierik gabe.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

- Amorós, A. (1980). *Introducción a la literatura*. Madrid: Castalia.
- Escudero Escorza, T. (1978). *Formulación de objetivos para la programación didáctica*. ICE. Universidad de Zaragoza: Editorial Abierta, 3.
- Badiou, A. (1982). *Théorie du sujet*. Paris: Seuil.
- Egile Batzuek (1974). *Literatura y Educación*. Madrid: Castalia.
- Egile batzuek. (1980). *La enseñanza de la literatura*. Cuadernos de Pedagogía.
- Castro Alonso, C. A. (1969). *Didáctica de la Literatura*. Salamanca: Anaya.
- Diez Borqué, J. M. (1985). *Comentario de textos literarios*. Madrid: Taurus.
- Esquer Torres, R. (1972). *Didáctica de la Literatura*. Madrid: Alcalá.
- Kayser (1968). *Interpretación y análisis de la obra literaria*. Madrid: Gredos.
- Lacan, M. H. (1966). *Didáctica de la literatura creadora*. Buenos Aires: Kapeluzs.
- Romera Castillo, J. (1984). *Didáctica de la Lengua y la Literatura*. Madrid: Playor.
- Sánchez Enciso, J. R., Francisco (1987). *Enseñar literatura*. Barcelona: Cuadernos de Pedagogía. Laia.
- Torre, G. d. (1970). *Las nuevas direcciones de la crítica literaria*. Madrid: Alianza Editorial.
- Valera Jacome, B. (1980). *Nuevas técnicas de análisis de textos*. Madrid: Bruño.